



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2024ko OTSAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2024ko otsailaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 18.30etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA :	Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK :	Unai Sorarrain Urruzola Urruzola
	Nagore Arizeta Garmendia
	Jose M ^a Aranzabe
	Ana Agesta Echecolonea
	Gillermo Otegi Zubillaga
	<i>Koldobika Jauregi Zinkunegi</i>

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
- ✓ **2024ko urtarrilaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2023 ekitaldian jasotako diru-laguntzaren zuriketa.**
5. **Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2023 kitapenaren berri ematea.**
6. **Danena Txirrindularitza Elkarteak aurkezturiko 2023 urtean jasotako diru-laguntzaren zuriketa.**
7. **Eudelek igorritako zirkularra onartzea, % 0,5 eko ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa 2023.01.01 ko ondorioekin.**
8. **Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari 2024 urteari dagokion ekarpena burutzeko onespena ematea.**
9. **Oiargi Mendi Elkarteak eginiko 2024 ekitaldirako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
10. **Fagus Alkiza interpretazio zentrorako bi informazio panelen kontratu esleipena.**
11. **Alkizako basoetan intsektu saproxilikoek habitaren baldintzen hobekuntza lanak egiteko kontratuaren esleipena.**



ALKIZAKO UDALA

12. Aldapako herribidean Ikilisagastiko zubia baino lehenago sangrada bat egiteko lanen esleipena.
13. Alkizako Erretore Etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanen 4. Obra ziurtagiriaren onespena.
14. X.A.P. jaunak eginiko eskaeraren azterketa.
15. J.D.J. jaunak eginiko eskaeraren azterketa.
16. Alkizako udalak erosi berri duen Alkiza plaza 3ko lokalaren, 2024 urteari dagokion ordainketa (2. Zatiaren ordainketa).
17. Beste batzuk.
18. Mozioak, erreguak eta galderak.
 - 18.1. Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko eguna dela eta, EUDEL-ek aurkezturiko adierazpen instituzionalaren onespena.
 - 18.2. Saharako Errepublika Arabiar demokratikoaren (RASD) 48. Urteurreneko adierazpen instituzionalaren onespena.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK

- 2024ko urtarrilaren 30eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 03/2024tik 12/2024 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

URAK SOLUCIONES TECNICAS	423,50
AINHOA KINTANA	502,15



ALKIZAKO UDALA

NAGORE ERRAZKIN	314,60
GOIENER	276,26
GOIENER	809,32
GOIENER	317,37
GOIENER	37,30
GOIENER	156,82
GOIENER	190,93
GOIENER	391,91
GOIENER	23,17
GOIENER	12,93
GOIENER	9,27
GOIENER	5,47
GOIENER	29,82
GOIENER	24,59
ORANGE	222,82
ICETEC	199,65
GOIENER	112,01
EBA ERKIZIA	941,91
COPY-TEC	5,05
OSCAR GALINDO	133,10
KIROLZER	211,83
JUAN JOSE ARREGI	192,50
PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	750,20
GUREAK	0,59
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	27,47
URAK SOLUCIONES TECNICAS	471,90
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA	118,58
GAZTEZULO	35,00
MICRONET	59,90
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	351,21
KOMUNIKAZIO BIZIAGOA	192,00
GOIENER	176,10
DIMARPE	171,90
MAQUELSA	68,03
ARGITU ASESORES	212,28
RECAMBIOS IBARRA	16,29
OBBTKN	741,49
ORANGE	35,27



ALKIZAKO UDALA

FONTANERIA ANTZIETA	1.140,57
---------------------	----------

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **10.113,06** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespina ematea.

LAUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M. -k AURKEZTURIKO 2023 EKITALDIAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZURIKETA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2023 urteko ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak, Talde honek eta Alkizako Udalaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2023 ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak onestea.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK AURKEZTURIKO 2023 KITAPENAREN BERRI EMATEA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2023 urteko kitapena, non azaltzen duen, Alkizako udalak 27.000,00 euroko ekarpena egin ziola Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari, baina udalak egin behar zuen ekarpena 24.715,80 eurotako zela. Beraz, Alkizako udalaren alde 2.284,20 eurotako diferentzia ateratzen da, udaletxeko kontuan ingresatua izango dena.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2023 ekitaldiko kitapena onestea.



ALKIZAKO UDALA

SEIGARREN PUNTUA

DANENA TXIRRINDULARITZA ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2023 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZURIKETA

Ikusirik Danena Txirrindu elkarteak aurkeztu duela Alkizako udalak 2023 urtean emandako diru-laguntzaren kitapena.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Danena txirrindularitza elkarteak aurkezturiko kitapena onesten da.

ZAZPIGARREN PUNTUA

EUDELEK IGORRITAKO ZIRKULARRA ONARTZEA,%0,5 EKO ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIARI BURUZKOA 2023.01.01KO ONDORIOEKIN

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

**"ZIRKULARRA, % 0,5eko ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIARI
BURUZKOA,
2023.01.01eko ONDORIOEKIN**

EUDELEK 2023ko urtarrilaren 18an, irailaren 22an eta urriaren 5ean bidalitako 2023ko ekitaldirako Ordainsari-igoerei buruzko zirkularren jarraipen gisa, honako hau jakinarazten dizuegu:

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19 Bi 2 b) artikulua honako hau xedatzen du:

"2. Halaber, hala badagokio, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, honako igoera hauek aplikatuko dira, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bi kasuetan:

(...)

b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izandako bilakaerari lotutako gehikuntza.

BPG nominalaren igoerak Gobernuak aurrekontuen lege hau egitearekin batera aurkeztutako koadromakroekonomikoan zenbatetsitakoa berdindu edo gaudituko balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.



ALKIZAKO UDALA

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko BPGren aurrerapendatuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabaki hori BOEn argitaratuko da ".

Agindu horretan xedatutakoaren arabera, 2024/01/30ean, Estatistikako Institutu Nazionalak Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaeraren 2023ko datua argitaratu zuen, lege horretako 19. Bi 2 b) artikuluan jasotakoa bete zelarik, hau da, % 0,5eko ordainsari-igoera osagarria izateko nahitaezko baldintza, 2023.01.1etik aurrera.

Era berean, eta Legeak berak bere artikuluetan jasotzen duen bezala, Ministroen Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran, gehikuntza osagarri hori aplikatzea erabaki zuen, eta erabaki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (BOE 2024/02/08).

*Hori guztia ikusita, eta 31/2022 Legeak ordainsarien arloan izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, EUDELeK egokitzat jotzen du euskal udalei honako **GOMENDIO** hau ematea:*

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea.

Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin."

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Eudelek igorritako zirkularra bere osotasunean onestea eta aplikatzea, %0,5eko ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa, 2023.01.01 eko ondorioekin.

ZORTZIGARREN PUNTUA

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEARI 2024 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ONESPENA EMATEA

Ikusirik, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko batzar Nagusiak, 2023ko abenduaren 16an ospatutakoak, beste gai batzuren artean UEMako kide diren herrien 2024rako kuotak ere onartu zituzten udal ordezkariak.

Ikusirik, aipatutako batzar nagusian, erabaki zela Alkizako Udalak 2024 urtean 3.768,55 eurotako kuota bat ordaindu behar duela. Kuota, ordainketa bakarrean egingo da.



ALKIZAKO UDALA

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak 2024 urtean 3.768,55 eurotako kuota bat ordaintzea UEMA-ri. Aipaturiko kuota, ordainketa bakarrean egingo da,

BIGARRENA: 3.768,55 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, 2024ko udal aurrekontuetako 481.335.00.05 kontu sailaren kontura.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

OIARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO 2024 EKITALDIRAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2024ko ekainaren 16an ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrak) maratoiaren IX. Eta T2T erdi maratoiaren VII. edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, parte-hartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 374 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2024eko ekainaren 16an ospatuko diren T3T IX. Eta T2T VII. edizioetan antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 374,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2024 urteko Udal aurrekontuetako 481.340.00.02 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.



ALKIZAKO UDALA

HAMARGARREN PUNTUA
FAGUS ALKIZA INTERPRETAZIO ZENTRORAKO BI INFORMAZIO
PALENEN KONTRATU ESLEIPENA

19.07 orduetan Koldobika Jauregi bilkura honetara bertaratzen da.

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Fagus Alkiza interpretazio zentrorako bi informazio panel jartzeko lanen kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Alkizako udalak, helburu horretarako hiru aurrekontu eskatu dituela, konkretuki MIZELIA, DESMA ESTUDIOS AMBIENTALES eta NATURTZAINDIA ELKARTEARI.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. **ZERBITZU** kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o



ALKIZAKO UDALA

unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

ZERBITZU kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: NATURTZAINDIA ELKARTEARI, Fagus Alkiza interpretazio zentrorako bi informazio panel jartzeko lanen kontratua esleitzea 4.000,00€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000.629.172.00.01** kontu sailaren kontura **“Biodibertsitatea 2021”**.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ALKIZAKO BASOETAN INTSEKTU SAPROXILIKOEN HABITAREN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANAK EGITEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Alkizako basoetan intsektu saproxilikoek habitaren baldintzen hobekuntza lanak egiteko kontratua esleitzea.



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Alkizako udalak, helburu horretarako hiru aurrekontu eskatu dituela, konkretuki MIZELIA, DESMA ESTUDIOS AMBIENTALES eta NATURTZAINDIA ELKARTEARI.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. **ZERBITZU** kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º



ALKIZAKO UDALA

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

ZERBITZU kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: NATURTZAINDIA ELKARTEARI, Alkizako basoetan intsektu saproxilikoen habitaren baldintzen hobekuntza lanak egiteko kontratua esleitzea 12.150,00€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000. 629.172.00.01** kontu sailaren kontura **“Biodibertsitatea 2021”**.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ALDAPAKO HERRIBIDEAN IKILISAGASTIKO ZUBIA BAINO LEHENAGO SANGRADA BAT EGITEKO LANEN ESLEIPENA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Alkizako Aldapako herribidean Ikilisagastiko zubia baino lehenago sangrada bat egiteko lanen kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Alkizako udalak, helburu horretarako GARRO CONSTRUCCIONES/ ERAIKUNTZAK enpresari aurrekontu bat eskatu diola.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. OBRA kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.



ALKIZAKO UDALA

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

OBRA kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:



ALKIZAKO UDALA

LEHENA: GARRO CONSTRUCCIONES/ERAIKUNTZAK enpresari, Alkizako Aldapako herribidean Ikilisagastiko zubia baino lehenago sangrada bat egiteko lanen kontratua esleitzea 3.798,65€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000. 601.153.04.01** kontu sailaren kontura **“Herri bideak konpontzea”**.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANEN 4. OBRA ZIURTAGIRIAREN ONESPENA

Ikusita Alkizako udalak, 2023ko irailaren 12an egindako udalbatzarrean, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak esleitu zizkiola OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.ri.

Ikusirik, aipaturiko lanak exekutatzeko ari direla.

Ikusirik egindako lanen ondorioz, OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.-k 4. Obra ziurtagiria aurkeztu duela.

4.Obra ziurtagiria: 54.812,07 euro.

Ikusirik aipaturiko obra ziurtagiriei, obra zuzendariak, hau da, Eba Erkizia udal aholkulari teknikoak bere on iritzia eman diela.

Ikusirik aipaturiko obra ziurtagiriak ordaintzeko 2023ko udal aurrekontuetan badagoela adina diru kopuru.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.-k aurkezturiko, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanen ondorioz, 4. Obra ziurtagiria onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.
Ondorengoak direlarik:



ALKIZAKO UDALA

4. Obra ziurtagiria: 54.812,07 euro.

BIGARRENA: 54.812,07 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa 2023ko udal aurrekontuetako 1 0000 622.920.00.01 kontu sailaren kontura egin dadin agintzea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

X.A.P. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik X.A.P. jaunak eginiko eskaera, non dioen ALTZA URUMEA EUSKALTEGIAN, 2023/2024 ikasturtean, euskarako ikastaro bat egiten ari dela, C1 helburu mailarekin, autoikaskuntza modalitatearekin. Ikastaroaren kostua 305,00 eurotako izanik, aipaturiko ikastaroa egiteko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesua bultzatu nahi duela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- X.A.P. jaunak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko, hau da, ALTZA URUMEA EUSKALTEGIAN egiten ari den euskara ikastarorako 305,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- X.A.P. jaunari jakinaraztea, diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo dela:

- 1. Ordainketa: Matrikularen % 50-a, matrikula eta ordainagiria Udaletxe honetan aurkezten dutenean.
- 2. Ordainketa: Ikastaroa amaitzean, gelditzen den % 50-a, Udaletxe honetan asistentzia ziurtagiria aurkezten duenean. Ordainketa hau burutzeko gutxieneko asistentzia % 80a izan beharko da.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri X.A.P. jaunari ematea.

HAMABOST GARREN PUNTUA

J.D.J. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik J.D. jaunak eginiko eskaera, non dioen EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA-n, AEK-n, 2023/2024 ikasturtean, euskarako ikastaro bat egiten ari dela, C1B2. helburu mailarekin. Ikastaroaren kostua 327,00 eurotako izanik, aipaturiko ikastaroa egiteko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesua bultzatu nahi duela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- J.D. jaunak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko, hau da, EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA-n, AEK-n egiten ari den euskara ikastarorako 327,00 eurotako diru-laguntza onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

BIGARRENA.- 327,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri J.D. jaunari ematea.

HAMASEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALAK EROSI BERRI DUEN ALKIZA PLAZA 3ko LOKALAREN, 2024 URTEARI DAGOKION ORDAINKETA BURUTZEA (2. ZATIAREN ORDAINKETA)

Ikusita, Alkizako udalak, 2023ko urriaren 18ko eskritura dataz, Alkiza plaza 3an kokatua dagoen lokala erosi ziola M.A.B.L. andreari.

Erosketaren ordainketa hiru urtetan banatuko zela adostu zen, 2023 urteari zegokion ordainketa, eskritura egitean gauzatu zen. Ondorengo urteetan, hau da, 2024 eta 2025 urteetako martxoan, 28.866,67 euro urte bakoitzean ordainduko zela zehaztuta gelditu zen eskritura publikoan.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.A.B.L. andreari, 2024 urteko martxoan, 28.866,67 euroko ordainketa egitea, 2023ko urriaren 18an Natalia Elvira Moreno Ibañez



ALKIZAKO UDALA

notarioren aurrean eginiko eskrituran zehazten den modura, Alkiza Plaza 3an kokatua dagoen lokalaren erosketarako adostutakoari jarraituz.

BIGARRENA: 28.866,67 euroko gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2024 urteko 682.920.00.01 kontu sailaren kargura.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

17.1. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2024KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2024 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 14.500,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 11.500,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 14.500,00 eurotako ekarpena burutzea 2024 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako "421.230.00.01 eta 421.330.00.01" kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 11.500,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro

BIGARRENA.- 14.500,00 eurotako gastua onartzea.

HAMALAU GARREN PUNTUA **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**



ALKIZAKO UDALA

18.1.MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, EUDELEK AURUKEZTURIKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA

Ondoren, 2024ko martxoaren 8ko emakumeen nazioarteko eguna dela eta, UEMA-ren adierazpena aurkezten da, non ondorengo dioen:

“2024ko martxoaren 8rako EUDELeko Adierazpena

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkututzen ari da, hala nola prekarietatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.



ALKIZAKO UDALA

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeke eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Alkizako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministaraino.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa**-guneak babestea, ahalduz feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezten.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea—ikuspegi intersektionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.
- Adineko emakumeentzat, bereziki alargunentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoa** ezagutaraztea.
- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.



ALKIZAKO UDALA

- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.
- BERDINSAREA sarearen bidez, EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin, udalerrriak emakumeen tokiko **memoria berreskuratzeko** abian jartzen ari diren ekimenak **ezagutaraztea eta ikusaraztea**.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZAN DU:

BAKARRA: 2024ko martxoaren 8a, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, UEMA-k aurkezturiko adierazpena bere osotasunean onartzen da.

18.2. SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAZ DEMOKRATIKOAREN (RASD) 48. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA

Ondoren, EUSKADIKO SAHARAR ORDEZKARITZAK, Saharako errepublika arabiar demokratikoaren 48. Urteurreneko adierazpen instituzionala aurkezten da, non ondorengo dioen:

“SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAZ DEMOKRATIKOAREN (RASD) 48. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERAKO PROPOSAMENA

Egun gutxi barru, Saharar Herriak Saharako Estatuaren (SEAD) sorreraren berrogeita zortzigarren urteurrena ospatuko du, askapenerako eta erabateko subiranotasunerako bere sorreraren eta eraikuntzaren faseak arrakastaz gainditu ondoren.

Berrogeita zortzi urte hauetan, Saharar Herriak nortasun nazional propioa sendotzea lortu du sakrifizioei eta batasun nazionalari esker. Saharar gurtiak harro sentitu behar dira bere erakunde nazionalen funtzionamenduz, exiloaren baldintza gogorak eta baliabiderik eza gorabehera.

Saharar Herria inoiz baino lotuago dago autodeterminaziorako eta independentziarako dituen eskubide legitimoei, eta Marokoren aurkako



ALKIZAKO UDALA

borrokarekin jarraituko du, potentzia okupatzailea baita, Mendebaldeko Saharako errepresioaren eta baliabide naturalen espoliazioaren arduraduna.

Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordioari dagokionez, Luxenburgoren egoitza duen Europako Justizia Auzitegiaren epaiak albiste eta funtsezko aurrerapen gisa hartu zirela egiaztatu da; izan ere, epai horien arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararen gainean duen subiranotasuna ez dute onartzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ezta, oro har, NBEk ere ". Horregatik, beharrezkoa da Espainiak eta Europar Batasunak Fronte Polisarioarekin negoziatzen hastea, merkataritza-eta ekonomia-harreman egokiak ezartzeko.

Horregatik gurtiagatik,

Berriz ere adierazi nahi dugu ez gaudela ados Espainiako Gobernuko presidentek
Mendebaldeko Saharari buruz egindako erabateko aldaketa historikoarekin.

ESKATZEN DIEGU Nazio Batuei, lehenbailehen, gatazka honen konponbide justu eta behin betikoa sustatzeko, Saharako Herriaren autodeterminazio-eskubidea gauzatu behar baita amaitu gabeko deskolonizazio-prozesua amaitzeko, erreferendum aske eta gardena eginez.

BERRESTEN dugu Fronte Polisarioa Saharar Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa dela,

EXIJITZEN diogu Marokori preso politiko eta kontzientzia saharar guztiak berehala aska ditzala, eta bertan behera utz ditzala bere espetxeetako eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetako giza eskubideen urraketak.

ESKATZEN DUGU Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioak (MINURSO) bere eginkizunak zabaltzea Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetako giza eskubideen kontrola eta jarraipena egin dezan.

ESKATZEN DIOGU Espainiako Gobernuari estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariari, Saharar Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik; eta Nazio Batuen Mendebaldeko Sahararako Bake Plana betez, konponbide justu eta behin betikoa lortzeko behar diren ekimen politikoak sustatzea.

SALATZEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak espoliatzen dituela.



ALKIZAKO UDALA

ESKATZEN DIEGU Mendebaldeko Saharan jarduten duten enpresei errespeta dezatela baliabide naturalen gaineko subiranotasun iraunkorreko eskubidea eta lurralde okupatu bateko baliabide naturalen ustiapenari aplikatu dakizkiokeen nazioarteko zuzenbide humanitarioko arauak.

GOGORATZEN DUGU Marokok ez duela inola ere Mendebaldeko Sahararen gaineko subiranotasunik, eta Europar Batasunak ezin duela akordiorik sinatu Marokorekin Fronte Polisarioaren baimenik gabe. Gainera, EB behartuta dago printzipio horren eta arau horien urraketatik ondorioztatzen den legez kontrako egoera oro salatzeraz.

IRAGARTZEN DUGU SEADen aldarrikapenaren 48. urteurrena dela eta, euskal erakunde eta entitateetako ordezkariak Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara joango direla Saharar Herriaren bidezko borrokarekiko konpromisoa berritzeko.

Onartutako adierazpenak helbide hauetara bidaltzea proposatzen dizuegu:

a) ESPAINIAKO ERREGE ETXEA

Zaruela jauregia. Pardo errepidea z.g. 28071 Madril

b) ESPAINIAKO

GOBERNUKO

LEHENDAKARITZA Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, z/g. 28071 Madril

c) KANPO ARAZOETAKO, EUROPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA

Plaza del Marqués de Salamanca, 8. 28006 Madril

d) EUROPAKO BATZORDEA

Josep Borrell Fontelles

Alto representante de la Unión para Asuntos Exteriores y Política de Seguridad Rue de la Loi. Wetstraat 170. B-1049 Bruxelles/Brussel. Belgique

e) FRONTE POLISAIORRAREN ESPAINIARAKO ORDEZKARITZA Principe de Vergara kalea, 83, 1.a, 28006 Madril

f) FRONTE POLISARIOAREN EUSKADIKO ORDEZKARITZA Jesus Apellaniz margolaria, 9 - 01008 Vitoria-Gasteiz

Gaia aztertutik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZAN DU:



ALKIZAKO UDALA

BAKARRA: Euskadiko Saharar ordezkariak aurkezturiko, Sahara errepublika arabiar demokratikoaren 48. Urteurreneko a adierazpena bere osotasunean onartzen da.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.17 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

